

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, adineko pertsonen zaintza beharra dute, askotan bakarrik bizi direlako eta horregatik zaintza hori eskaintzen duen enpresa sortzeko ideia izan dugu. Arazo hau, Agenda 2030eko hirugarren helburuarekin lotzen dugu, osasuna eta ongizatearekin, hau da, bizitza osasuntsuak bermatu eta adin guztietako pertsonen ongizatea sustatu. Bestalde, arazo garrantzitsua dela uste dugu nahiz eta adineko pertsonak izan, pertsonak izaten jarraitzen dutelako eta beraiek bakarrik beraien autonomia mantentzeko arazoak izaten dituzte. Horrek familiek laguntza bilatzea dakar. Hau dela eta, familiak emakume etorkinetan pentsatzen dute adinakoen zaintza egiteko, hauei lan baldintza oso kaskarrak eskainiz.

Beraz, bi arazo hauei eman diegun konponbidea, atzerritarrek adineko pertsona horiei kalitatezko zaintza bat eskaintzea izango da, horrela, aldi berean, atzerritarrei herrialde berri batean haien bizitza berregiteko aukera emanez eta lan duina eskainiz. Zerbitzuak, 15€-ko prezioa izango du orduko eta prezio horren truke kalitate handiko zaintza, konfiantzazkoa eta profesionala eskainiko dugu. Gure helburua familiaz eta langiletaz osatutako kooperatiba bat sortzea da, horrela zerbitzuaren kalitatea eta langileen formakuntza eta lan baldintza duinak emonez.

Eremu geografikoari dagokionez, Bilboko erdigunean lan egingo dugu uste dugulako horrelako proiektu baterako leku egokiena izan ahal dela. Gainera, konfiantza handiko enpresa izango gara bezeroaren erosotasuna bilatuz, bezeroak eskatzen duena eskainiz ahal dugun heinean. Horretaz aparte, zaintza zerbitzua eskaintzeaz gain, langileei formakuntza eta bakarrik daudenentzat orduetako zaintzak eta koinpainia eskainiko dugu.

Amaitzeko, kompetenziari dagokionez, Bilbo osotik dauden beste erresidentziak izango dira, hala nola, Caser. Hau, sektoreko enpresa handienetako bat da hainbat erresidentzia dituelako zaintzen dedikatzen direnak, aipagarrienak agian, Artxandan eta Txurdinagan daudenak.